| Ardatz estrategikoa: | 5. ardatza.- Administrazio elektronikoa | Proiektua: | 5.4. Zerbitzu Elektronikoen Plataforma Orokorra |
|---|---|---|---|
| **Azpiproiektua:** | **5.4.1. Zerbitzu Katalogoaren eboluzioa eta PLATEAko sistemekiko integrazioa** | | |
| **Deskribapenaren laburpena:** | Zerbitzu Katalogoaren eboluzioa bilatzen da, funtsezkoa baita Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Elektronikoen Kudeaketa Eredua zabaltzeko eta sendotzeko. Proiektu honen xedea da, halaber, Katalogoaren integrazioan aurrerapausoak ematea Administrazio elektronikoaren sistema komunen bidez. Hala, Eusko Jaurlaritzako zerbitzu eta prozeduren fitxategi nagusi gisa ere balioko du. | | |

| Helburu orokorrak: | Helburu operatiboak: |
|---|---|
| • EAEko Administrazio Orokorrak eskaintzen dituen barne- eta kanpo-zerbitzuen eta -prozeduren ikuspegi integral bat edukitzea<br>• Administrazio Elektronikoaren zerbitzu komunak hobeto kudeatzea | • Katalogoa martxan, osorik eta eguneratuta egotea 2014ko abendurako<br>• Katalogoa kudeatzeko tresna berrikusita, eboluzionatuta eta martxan egotea, bere bertsio berrian, 2015eko ekainerako<br>• Katalogoa integratuta egotea administrazio elektronikoaren sistema komun guztiekin, 2015eko abendurako |

**Egikaritzea:**

- 5.1.1. proiektuan (Administrazio Elektronikoaren antolamendu- eta funtzionaltasun-eredua sendotzea) adierazi den bezala, CdS-Zerbitzuen Katalogoko zerbitzu eta prozeduren kodea korporazioko zerbitzu elektronikoen bereizgarri gisa erabiltzen da: PLATEA-tramitazioa, artxibo elektronikoa, elkarreragingarritasuna, ordezkarien erregistroa eta edukien kudeatzailea.
- Zerbitzuen Katalogoa eskuz integratzen da administrazio elektronikoko sistema orokorrekin, sistema orokor bakoitzean betez zerbitzuaren kodea eta Zerbitzuen Katalogoko prozedura. Salbuespen bakarra Ordezkarien Erregistro Elektronikoa da, kasu horretan Zerbitzuen Katalogoaren datu-basea erabiltzen da-eta.
- Zerbitzuen Katalogoak betetze-maila handia du digitalizatutako prozedurei dagokienez, baina informazioaren kalitatea ez da hain handia digitalizatu gabeko prozedurekin alderatuta.
- 2016an, CdSaren kudeaketa-tresnaren eboluzioaren azterketa egin da, eta 2017rako dago aurreikusita haren garapena eta sistema berrirako migrazioa.

| Arduraduna: | Aldi baterako aurreikuspena: | Egikaritzeko benetako epea: | Egoera: | Balorazioa: |
|---|---|---|---|---|
| DACIMA | Epea: 2 urte<br>Hasiera: 2014<br>Amaiera: 2015 | Hasiera: 2104<br>Amaiera: | ☐ Amaitua<br>■ Aribidean<br>☐ Hasi gabe | ☐ Positiboa<br>■ Hala-nolakoa<br>☐ Negatiboa |

**Oharrak:**